

NOMBRES EUSKAROS EN AFRICA.

Publicamos con el mayor gusto, acompañada de su traducción castellana, la siguiente curiosa carta con que se ha servido favorecernos nuestro estimado colaborador labortano Sr. Guilbeau:

Otsailaren 25^{an} 1881^{an} Don-Ibane Lohizunen. = *Adichkidea*:— Azkeneko Tunisiako gerla denboran irakurtu ditutzu segurki, Franziaiko armadac, eta haren etsaïec izan dituzten ibil-bideac, eta ikusi ere, zenbat Eskaldun izen aurkitzen den, hec ibili diren lekuetan.

Goraki ezagun da hurtaric, Eskalduna Afrikan iragan dela. Mendi, ur, herri, oihan, leku hainitzec Eskaldun izenac egungo egunean toki hetan oraino dakarzkate.

Huna emen zenbeit, orhoitzapenac bururat ematen dauzkidanac:

Rekaissia...	Tunisiako herri zathi bat. Un barrio de Tunez.	Erre-Erreka=haizea-aisia.=
Ouhaindia...	— orobat id.	Ur=handia—gaindia.
Hamarat...	— » id.	Ama=harat, ganat.
Souassia....	— » id.	Su=asia.
Maizila....	Tunisiako herri bat. Un pueblo de Tunez.	Maiz-ilha.
Sidi askar...	— orobat id.	S.:askar.
Chellala harania.	Algeriako leku bat. Un lugar de Argel.	Ch:.. harania.
Gueronbalia...	Tunisiako herri zathi bat. Un barrio de Tunez.	Gero—on=balia. (Gu ere on).
Hanala hegia...	— orobat id.	H:.. hegia (han—hala—egia).
Chaala....	— » id.	Chaala
Sokoua....	— » id.	Sokua.
Anaia....	Tunisian adichkidantzako-seinale bat. Signo de amistad en Tunez.	Anaia.
Itarem....	Afrikako gherlari baten izena. Nombre de un guerrero africano.	Aitaren.
Soukarras...	Tunisiako hiri baten izena. Nombre de un pueblo de Tunez.	Su=karra.
Onryhama...	Tuniziako alderdi bat. Una region de Tunez.	Ur=uri=ama.
Ouarga....	— orobat id.	Ur=har=ga, (garraio).
Chares bou ganen.	— » id.	Chara (b:.) ganen.
Manouba....	Tunisiako leku bat. Un lugar de Tunez.	Manua.
Zainzain...	Afrikan gizon baten izena. Nombre de un africano.	Zaina (id.)
Ungoza....	— Orobat id	On=goza.

Bertze asko balaitazke oraino, bainan ez dut nahi sobera zure «Eskal-erria» nere eranzuteaz bethe.

Errana da, Eskaldunen arbasoac eldu direla, mundua hasi zen lurretic: *Asia*, *astea*, Eskaldun hitzac dire, ez da dudaric.

Edatu zirenean, Eskaldunac Asiatic, mendebal alderat, iragan zuten Afrikako ipar-aldea eta jautsi ziren Iberiarat.

Horra, zer segurta daiteken egun, enganatzea beldur gabe.

Chaho jakintsunac, aurkitu zituen denboraz Afrikan bazirela hainitz izen Eskaldunac. Huna harc aurkitutaric zenbeit:

Ainherrites—Chourites—Muturgorres—Arzabal—Abarca—Arripa—Arrachotu—Uzargala—Saraca—Buthura—etc., etc.

Bainan, aski, adichkidea, egungo.

Ez dut luzatu nahi geiago nere gutuna edo escutitza.

Zure adichkide.

M. GUILBEAU, *Don Ibane-Lohizungoa*,

Febrero 25 de 1882.—San Juan de Luz.—Amigo mio: En tiempo de la última guerra de Túnez ha leído V. seguramente las andanzas de los ejércitos de Francia y de sus enemigos, y visto cuantos nombres bascongados se hallan en los países que han recorrido.

Bien claramente se conoce por ello que el Basco ha pasado por Africa. Montes, rios, pueblos, bosques, numerosos lugares, conservan todavía en nuestros días nombres euskaros. Hé aquí algunos, que recuerda en este momento mi memoria. (*Véase el cuadro que aparece en la página anterior*).

Muchos más nombres aun pudieran citarse, pero no quiero abusar con exceso de las páginas de la EUSKAL-ERRIA.

Es tradicion que los ascendientes de los euskaros proceden de la primera tierra que se pobló en el globo: *Asia*, *astea*, son, á no dudarlo, voces euskaras.

Cuando los bascos se dirigieron del Asia hacia el Norte recorrieron la parte septentrional del Africa y bajaron á la Iberia.

Hé aquí lo que hoy puede afirmarse, sin temor de equivocarse.

El sabio Chao encontró antiguamente muchas voces euskaras en Africa. Hé aquí algunas de las citadas por él: (*Véanse al fin de la carta bascongada*).

Pero, amigo mio, basta por hoy. No quiero alargar mas esta mi carta.—Su amigo,

M. GUILBEAU, de San Juan de Luz.